

“FAMILIA BIDEZKO JARRAIPENA” - 2021

BALANTZEA ETA JUSTIFIKAZIOA



AURKIBIDEA

1.- SARRERA

2.- HELBURUAK

3.- JARDUERA

- 1.- “Gurasoei begirako kanpaina”
- 2.- Hasi Hezi aldizkariaren harpidetza berezia
- 3.- Eskala Agenda
- 4.- “Haurren aurrean helduok heldu”

3.1.- JARDUERA GARATZEKO OINARRIAK

3.2.- ERAGILEAK ETA BALIABIDEAK

3.3.- BALORAZIOA

4. KRONOGRAMA

5.- AURREKONTUA GUZTIRA

ERANSKINAK:

- I. Eranskina: Gurasoei begirako kanpaina (euskarriak)
- II. Eranskina: Hasi Hezi aldizkariaren aleak
- III. Eranskina: Eskola Agenda (portada)
- IV. Eranskina: Haurren aurrean, helduok heldu kanpainako euskarriak

1.-SARRERA

Egitasmo orokor bat dugu “Familiabidezko jarraipena” dinamizazio proiektua eta horren barruan txertatzen ditugu zenbait azpiegitasmo 2021ean aurrekontu murrizagoen menpe, esparru honetan ekiteari ezin utzi, baina ezin horren zabal jardun.

Ohizko azpi egitasmoei eutsi zaie eta, ahal den neurrian, Euskara Zerbitzuak bereak dituen baliabieekin burutu behar izan dira. Hona hemen familiabidezko jarraipenerako egitasmo orokor honen baitan 2021ean izan diren jarduerak (aurreikusitakoak):

- **Jaioberrien gurasoei materiala banatzea.**- Alkarbidek urtero koordinatzen dituen kanpainetan parte hartu dugu (adur zapiak, poltsak, eman giltza, emaiouzu bizia, Ku-ku argitalpena), daukagun materiala osatzeko.
- Aurtengoan ere, 2016an martxan jarritako eskaintza berri bati eutsi diogu: HIK HASI erakundearen **Hazi Hezi aldizkariaren harpidetza** ikasle matrikulatu berrien gurasoentzat. Honakoa burutzeko irakaskuntza zentroen bitartekaritza lantzen da.
- **Eskola Agenda 2021-2022.**- 2019tik ona Alkarbidek koordinatzen duen Eskola Agendan ere parte hartu dugu 2021ean, aintzat hartuta hezkuntzako agenteen zirkulu osoak duela lotura “agendaren” dinamikarekin (irakasleak, ikasleak, gurasoak) eta irakaskuntza zentroetan oso estimatua dela material hau.
- **“Euskaraz oparitu” kanpaina.**- Hau ere Alkarbidek koordinatzen du; guk ez dugu katalogoa banatzen, baina kanpainarekin bat eginda, geure baliabideekin garatu izan dugu azken urteetan, dendarietikoa lehenetsiz (euskarazko produktuetan %5eko deskontua); 2021ean beste horrenbeste egin dugu.

Egitasmo orokor honekin lotura zuten azpi-egitasmo batzuk baztertu beharrean aurkitu izan genuen 2020an eta 2021ean ere oztopo berdinekin jarraitzen dugu, egoera lehengoratzan ez den bitartean:

- **“Gurasoentzako ikastaro bereziak”** deituriko azpi-egitasmoa. Aurtengoan jarduera hori “euskara ikasteko diru-laguntzekin” lotzea erabaki dugu.

- **Familien arteko lehiaketa erraldoia** (3-6 urte bitarteko umeei eta euren gurasoei begirakoa). 2012 eta 2013 urteetan diru faltagatik baztertu eta, gurasoen aldetik izan ziren kexa eta eskakizunak bitarteko, 2014an berreskuratu zen azpiegitasmoa, lehentasuna eman zitzaiolako; 2019an eutsi zitzaion; 2020an eta 2021ean bertan behera geratu da.
- 2016ko kale neurketaren datuengatik kezkatuta esperientzia pilotu bat izan genuen 2017an eta taxuz garatu zen 2018ko azken hiruhilekoan, **“Kalean Olgetan”** lemapekoa eta 5-12 urte bitarteko haurrengan maila informalean eragiteko asmatua. Kaleko jolas lekuetan burutzen izan da eta osagaiak zituen gurasoen partaidetza lantzeko. Hau ere bertan behera geratu da azken bi urteetan.

Bestalde, bat-batean iritsi zaigun proposamen bati eutsi ahal izan diogu esparru honetan, Topaguneak abian jarritako “udazkeneko ekimena”, “Haurren aurrean, helduok heldu” lemapean.

2.- HELBURUAK

“FAMILIA BIDEZKO JARRAIPENA” deituriko proiektu hau, aipatu lau azpiegitasmoekin osatzen dena, 2019-2022 eperako indarrean dagoen Euskara Sustatzeko Ekintza Planean aintzat harturiko neurri eta ekintzekin bat dator eta, ondorioz, 2019ko Kudeaketa Planarekin ere bai; biak onartu ziren 2019ko otsailaren 27ko Osoko Bilkuran.

Egitasmo orokor honen arabera, 2021eko Kudeaketa Planean txertatu diren zenbait helburu, neurri eta ekintza bete nahi izan dira (guztiak ezin izan dira landu, egitasmo batzuk baztertu egin behar izan dira eta):

Helburu estrategikoa: Euskararen transmisioa

Esparrua / Neurria / Ekintza

1. Familia bidezko transmisioa:

1.1.4.1.- Haur jaio berrien gurasoei euskara eta euskal kulturari lotutako bildumak bidali: ipuinak, kantuak, materiala – Ku-Ku, adur zapiak, poltsak, argitalpenak,...-).

1.1.4.2.- Euskarazko produktuen katalogoa ezagutzera eman: web orrian, gurasoei bidalitako gutuna,...

1.1.4.3.- Alkarbidek koordinatzen duen Eskola Agendaren egitasmoan parte hartu eta irakaskuntza zentroei eskaini.

1.1.4.3.- HAZI HEZI aldizkariaren harpidetza eskaini matrikulatu berriak diren ikasleen gurasoei.



Gurasoentzat ikastaro bereziak antolatzen dira 14.2.1.1. azpiekintzari jarraiki eta Berbalagun egitasmoarekiko loturak ere lantzen dira Guraso Elkarteeekin. Diru laguntzei dagokienean, gurasoei ere zabalkunde berezia egiten zaie.

3- JARDUERAK

Egitasmo orokor honen baitan garatu diren jarduerak honako hauek dira:

1.- Jaioberrien gurasoei materiala banatzea

Alkarbidek urtero koordinatzen dituen kanpainetan parte hartu dugu (eman giltza, emazioz bizia, materiala, argitalpenak), aurreko urteetan jasotako materiala osatzeko (KU-KU argitalpena -abesti bilduma-, ume elebidunen gurasoentzako aholku liburuxka, adur zapiak, pegatinak, askari poltsak).

2.- HAZI HEZI aldizkariaren doako harpidetza

2016rako gauza berri bat txertatu genuen esparru honetan: HIK HASI erakundearen Hazi Hezi aldizkariaren doako harpidetza, lehenengoz matrikulatzen diren haurren guraso euskaldunei eskainia. Hiruhilabetekaria da, gurasoberrientzat gai interesgarriak lantzen dituen aldizkari bakarra. Hona hemen urte bakoitzeko eskaera egin duten gurasoen kopurua:

3.- Eskola Agenda

Sarrera idatzian esan bezala, 2019an eutsi genion Alkarbidek koordinatzen duen Eskola Agendari eta jarduera hori atal honetan txertatzea egokitzen jo genuen, agenda horren bidez haurrak gurasoekin dituzten harremanak lantzen direlako eta eskolaren dinamika jarraitzeko tresna delako (hezkuntza munduko agente guztiak harremanetan jartzen ditu, ikasleak, irakasleak eta gurasoak).

4.- “Haurrean aurrean, helduok heldu” udazkeneko kanpaina

Topagunearen eskutik etorri da 2021ean, haurrekin harremanak dituzten helduei begirako kanpaina eta azaroaren 22tik abenduaren 5era, Euskararen Eguna tartean. Helburua, helduen artean euskara erabiltzeko sentsibilizazio kanpaina gauzatzea, aipatu epean erabilerarako gonbitea eginik (Euskaraldia ez, baina antzeko dinamika gura izan da gauzatu).

3.1.- JARDUERAK GARATZEKO OINARRIAK

- “Jaioberrien gurasoei materiala banatzea.- Soberan dagoen materiala banatuko zaie: gutuna, ume elebidunen gurasoentzako aholku liburuxka, oparia, ku-ku liburuxka, HAZI HEZI aldizkariaren ale berezia.



- Anbulatorioarekin elkarlana, han ere jaioberrien gurasoei materiala banatzeko (eman giltza, ume elebidunen gurasoentzako aholku liburuxka).
- HIK HASI erakundearekin eta ikastetxeekin elkarlana HAZI HEZI aldizkariaren doako harpidetzak bideratzeko matrikula kanpainarekin batera.
- Alkarbideren bitartez 891 eskola agenda eskuratuko dira, LHko azken zikloko ikasleentzat. Hiru zentrok adierazi dute interesa horretan parte hartzeko (Barrutia ikastetxea, San Fidel Ikastola eta Seber Altube ikastola) eta urtetik urtera areagotuz joan da agenda kopurua.
- Topagunearekin elkarlanean, “Haurren aurrean, helduok heldu” kanpaina burutzeko. Topaguneak eskaini ditu euskarriren diseinua (busetarako biniloak, pegatinak, pankartak,...) eta Udal erakunde bakoitzak erantzun izan dituen diru-baliabideekin. Gure kasuan, Gernika-Lumon, irakaskuntza zentroetako guraso elkarteetara jo dugu kanpainaren dinamizaziorako.

3.2.- ERAGILEAK ETA BALIABIDEAK

- **Eragileak:**

- Euskara Zerbitzua.
- Udal Eskola Kontseilua eta guraso elkarteak.
- Udaleko Erregistro eta Estatistika saila (jaioberrien gurasoei materiala)
- Anbulatorioko pediatria eta emaginaren zerbitzuak.
- HIK HASI erakundeko arduradunak.
- Alkarbide (Eskola Agenda)
- Topagunea eta udalerriko guraso elkarteak.

- **Baliabideak:**

- Diru iturriak Euskara Zerbitzuarenak.
- Giza baliabideak: Euskara Zerbitzuarenak (HNT1), anbulatoriokoak (pediatria eta ginekologiako erizainak -2- eta emagina), eskoletako euskara arduradunak (gurasoei begirako kanpaina bideratzeko), Udal Erregistroko arduraduna; HIZ HASI erakundeko arduradunak; Alkarbideko teknikariak.
- Erabiliko diren euskarriak, materiala:
 - Jaioberrien gurasoentzat : gutuna, Ku-Ku” haur kantak, adur zapia, poltsak, Ume elebidunen gurasoentzako aholkuen liburuxka, Emaiozu bizia liburuxka eta DVDa.
 - HAZI HEZI hiruhilabetekaria, doako harpidetza egiteko borondatea eta gogoagartzen duten gurasoentzat.



- “Haurren aurrean, helduok heldu” kanpainarako: kartelak (300), pankartak (20), Hitzan orri berezia, 5000 pegatina indetifikagarri gisa.

3.3.- BALORAZIOA

Balorazio kuantitatiboa:

- “Ondorengoetaratze kanpainako” xede taldea jaioberrien gurasoak (2021ean 180 jaioberri) izan dira eta guztiei eman zaie materiala umea erroldatzerakoan. Beraz, alde honetatik %100ean bete da helburua.
- “Emaiozu bizia” kanpainako xede taldea umea izatear dauden gurasoei begirakoa da, beraz 200 bat bikote. Guztiei banatu zaie kanpainako materiala eta prestakuntza saioetan ere txertatu egin du emaginak hizkuntzaren tratamenduari buruzko hausnarketa saioa.
- HAZI HEZI aldizkariaren harpidetza bi urterakoa da. Beraz, pilatu egiten dira aurreko ikasturtekoak eta ikasturte berrikoak. Guztira ikasturteko 50 bat dira eta horrek esan nahi du egindako eskaintzari %25ak eusten diola.
- Eskola agendaren arrakasta zentro bakoitzaren baloraziotik etorriko zaigu eta horrek eragingo du eskola agenda zentro guztietara hedatzea, baina momentuz esan dezakegu bostetik hiru zentrok hartzen dutela parte eta beste biak ez direla partaide euren kabuz lantzen dutelako agendarena.ç
- “Haurren aurrean, helduok heldu” kanpaina HH eta LH-ko ikasleen (2.400 inguru udalerriko zentroetan, eskualdeko asko barru) gurasoei eta zaintzaileei (aittite-amumak,...) zuzendua izan da, batik bat; guztira 5.000 pertsona heldu izan dira kanpainaren xede. Ahaleginak egin dira guztiengana iristeko.

Balorazio kualitatiboa:

- Sentsibilizazio kanpainak dira, beraz eragina neurtzeko beren-beregiko tresnak baliatzea oso zaila da. Kasu honetan, euskararen erabileraren neurketaren emaitzen jarraipena egiten dugu (Eustat-en datuak eta Soziolinguistika Klusterraren neurketa berezienak) eta, horren arabera, burutu beharreko ekintzak egokitu edota berriak eratu.
- Badago adierazle bat oso garrantzitsua, ez dakiguna kanpainaren ondorio den, baina familiak euskararekiko duen konpromisoaren berri ematen diguna: haur hezkuntzan matrikulatzen diren haur guztiak (%100) D ereduan matrikulatzen dira. Esan behar da gure udalerrian ez dagoela beste eredurik.

Ama-hizkuntza euskara (%)- Iturria: Eustat



UDALERRIA	1986	1991	1996	2001	2006	2011	ALDEA
Gernika-Lumo	60,8	60,6	60,7	59,80	55,42	53,50	-7,3
Bermeo	71,3	71,5	70,2	67,00	62,60	59,91	-11,13
Mungia	56,8	54,7	48,9	44,14	38,82	35,85	-20,95
EUSK. AUT. ELK.		20,6	20,6	18,80	19,41	19,27	-1,33

Hemen beheranzko bidea dugu orokorrean, apurka-apurka baina beherantza. Hizkuntza-gaitasunaren kasuan gertatu moduan, 2001-2006 urte bitarteko inflexioa ere nabarmentzen da hemen ere, beherakada handiagoa da beste urteetan baino eta.

Etxean euskaraz egiten dutenen portzentajea (iturria: Eustat)

UDALERRIA	1991	1996	2001	2006	2011	Aldea
Gernika-Lumo	% 41,07 6.448 hiztun. 15.697 biztanle	% 41,00 6.331 hiztun 15.439 biztanle	% 41,79 6.379 hiztun 15.264 biztanle	% 41,45 6.625 hiztun 15.981 biztanle	% 40,89 6.361 15.558	-0,18
Bermeo	% 55,74 9.991 hiztun. 17.923 biztanle	% 55,89 9.601 hiztun 17.176 biztanle	% 53,56 9.072 hiztun 16.938 biztanle	% 49,24 8.267 hiztun. 16.789 biztanle.	% 45,21	-10,53
Mungia	% 34,00 4.046 hiztun 11.900 biztanle	% 31,57 4.044 hiztun 12.807 biztanle	% 27,64 3.817 hiztun 13.807 biztanle	% 22,59 3.451 hiztun 15.275 biztanle	% 22,75	-11,41
EUSK. AUT. ELK.	% 13,79 290.329 hiztun 2.104.041 biztanle	% 13,63 286.092 hiztun 2.098.055	% 13,64 284.084 hiztun 2.082.587 biztanle	% 13,02 277.277 hiztun 2.129.339 biztanle	% 14,08	+0,29

Inguruko herrietan kontrako joera izan bada, Gernika-Lumon etxe barruan euskararekiko fideltasuna mantendu egin da, EAEn dagoen joerari eutsiz.

Anbulatorioko pediatria zerbitzukoek egindako datu-bilketa 2012ko ekainean zehar

Lagina	468 harreman gurasoekin eta 311 harreman haurrekin (ekainean zehar)	
Gurasoak Gernika-Lumokoak	%85	Gernika-Lumokoak baino ingurukoak esan beharko, anbulatorioak eskualderako zerbitzua ematen duelako
Gurasoak atzerritarrak	%15	Jaiotza tasaren igoera etorri berrien familiei diegu zor eta etorri berriak biztanleriaren %10a baino izan ez arren, pediatriako zerbitzuetan %15a dira.
Pediatriakoekin gurasoek euskaraz	%71	Pediatria zerbitzuan helduek ere gehiago erabiltzen dute euskara (zerbitzuko langileen motibazioa bitarteko? Bertako langileek euskaraz egin eta euren “prestigioa”-k erakarrita? Asertibitatea?) Datu honek, udalerriko euskaldunen portzentajea gainditu egiten du (%67,87) eta helduen kaleko erabilera ere nabarmen (%43,30)
Pediatriakoekin gurasoek euskaraz hala-hola	%4-5	Kopuru txikia da eta gurasoen zein umeen kasuan beretsua, baina datu interesgarria, konplejuak baztertzen ari direlako. Elebidun hartzaile direnak sar ditzakegu hemen.
Pediatriakoekin gurasoek erdaraz	%25	Guraso etorri berriak (%15) eta bertokoen %10a pilatzen dira hemen.
Pediatriakoekin umeek euskaraz	%85	Umeen erabilera ikusita (%85), ondorioa: kaleko umeen erabilera ere (%69,10) gainditu egiten da. Pediatriara joan diren guraso/tutore euskaldunen eta euskaraz aritu izan diren umeen portzentajeak berdinak dira (%85); horrek adierazten digu ume euskaldunen euskararekiko atxikimendua %100koa izan dela.
Pediatriakoekin umeek euskaraz hala hola	%6	Kopuru txikia da eta gurasoen zein umeen kasuan beretsua, baina datu interesgarria, konplejuak baztertzen ari direlako. Portzentaje hau guraso atzerritarrak dituzten umeen multzotik datorrela esan dezakegu, hizkuntza integrazioa nolabait gauzatzen delako seinale.
Pediatriakoekin umeek erdaraz	%9	Beraz, bertoko umeek guztiek dihardute euskaraz pediatriakoekin; gainera, atzerritarren bisiten portzentajea %15 izanik, esan nahi du beraietatik heren batek ere euskarari eusten diola gune horretan.

4.- KRONOGRAMA (2021)

“Gurasoei materiala”	Urt.	Ots.	Mar	Api.	Maia	Ek.	Uzt	Ir.	Ur.	Az	Ab
Materiala sailkatu											
Materiala eskatu Alkarbideri											
Udal Erregistroa (banaketa-jarraip.)											
Anbulatorioa (banaketa/jarraip.)											
Hazi Hezi aldizkariaren harp.											
Gurasoei HASI HEZI eskaini								2020	2020		
Gurasoen harpidetza eskaerak batu										2020	2020
Gurasoei HAZI HEZi bidali											
Eskola Agenda											
Eskola agenda prestatu (Alkarbide...elkarlana)											
Eskola agenda banatu											
Jarraipena (eragileen batzarrak)											
Haurren aurrean, helduok heldu											
Topagunearekin adostu											
Eragileekin harremanak (ikastetxeekin batzarrak)											
Kanpainarako euskarriak prestatu											
Eragileekin kanpainarako helburuak landu											
Kanpaina burutu											

5.- AURREKONTUA

Gastuak

Ondorengoetaratze kanpaina :	2.624,77
- Askari poltsa, paparrekoak, pegatinak..... 1.305,59	
- Ku-ku liburuxka eta weba eguneratzea.... 1.319,18	
Hasi Hezi aldizkaria	360
Eskola Agenda:	2.319,26
- Testuak egokitzea..... 106,11	
- Ilustrazioak..... 128,21	
- Inprimaketak..... 2.084,94	
Haurren aurrean, helduok heldu kanpaina:	1.535,49
- Topagunea (pankartak 20) 623,15	
- Kartela (Eixu)..... 211,75	
- Pagatinak (Eixu)..... 700,59	
Gastuak guztira	6.839,52

Diru sarrerak

Bizkaiko Foru Aldundiaren diru laguntza... GUZTIRA	548,55
---	---------------

Defizita

Gastuak guztira	6.839,52
Diru sarrerak guztira	548,55
Defizita	6.290,97

Gernika-Lumon, 2021eko urtarrilean.

Iñigo Magunagoikoetxea Agirre
Euskara Arloko Zinegotzia

Bittor Zarrabeitia Bengoa
Hizk. Norm. teknikaria

I. Eranskina: Gurasoei begirako kanpaina (euskarriak)








II. Eranskina

HASI HEZI aldizkariaren oinarrizko alearen portada



III. Eranskina: Eskola Agenda (portada)



Kontraportada

SUSTATZAILEAK:



Arrankudiaga-Zolloko Udala
Euskara Zerbitzua
www.arrankudiaga.org



Arrigorriagako Udala
Euskara Zerbitzua
www.arrigorriaga.eus



Basauriko Udala
Euskara Zerbitzua
www.basauri.net



Bermeoko Udala
Euskara Saila
www.bermeo-euskaraz.eus



Busturiko Udala
Euskara Zerbitzua
www.busturia.org



Elorrioko Udala
Euskara Zerbitzua
www.elorrio.eus



Erandio Udala
Euskara Zerbitzua
www.erandio.eus



Etxebarri Udala
Euskara Zerbitzua
www.etxebarri.eus



Etxebarriko Udala
Euskara Zerbitzua
www.etxebarria.biz



Gatikako Udala
Euskara Zerbitzua
www.gatika.net



Gernika-Lumoko Udala
Euskara Zerbitzua
www.gernika-lumo.eus



Laukizko Udala
Euskara Zerbitzua
www.laukiz.eus



Mundakako Udala
Euskara Zerbitzua
www.mundaka.org



**MUNITIBAR
ARBATZEGI GERRIKAITZ
UDALA**
Euskara Zerbitzua
www.munitibar.org



Muskizko Udala
Euskara Zerbitzua
www.muskiz.org



Muxikako Udala
Euskara Zerbitzua
www.muxikakoudala.eus



Orozkoko Udala
Euskara Zerbitzua
www.ozkoudala.com



Otxandioko Udala
Euskara Zerbitzua
www.otxandio.eus



Ugao-Miraballesko Udala
Euskara Zerbitzua
www.ugao-miraballes.eus



Zierbenako Udala
Euskara Zerbitzua
www.zierbena.net

BABESLEAK:



ALKARBIDE
Bizkaiko Euskara Zerbitzuen Bilgunea

Testuak: Alaine Agirre • Ilustrazioak: Leire Urbeltz • Diseinua: Biko komunikazioa

IV. Eranskina: Haurren aurrean, helduok heldu kanpainako euskarriak



13/10/21 10:00

Logoa



<https://drive.google.com/drive/folders/1WMe4Y8FU3HvIdugk3S1SLIARIS2ia>

1/2

